

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

#### **2023an Vitoria-Gasteizen 45 urtetik gorako enplegu egonkorra eta kalitatekoa sustatzeko udal laguntza ekonomikoen deialdia arautuko duten berariazko oinarriak**

2022ko urriaren 14an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko Udalaren 2023ko dirulaguntza-deialdiak arautuko dituzten oinarri orokorrak. 2022ko azaroaren 7ko ALHAOn (127 zenbakia) argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta udalaren webgunean kontsulta daitezke ([www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)), baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Berariazko deialdi honetara aurkeztu nahi duten pertsona eta entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko non eta nola aurkeztu eskabideak, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten eskatzaileek, nola justifikatu behar dituzten dirulaguntzak, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

2023ko martxoaren 31n egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2023an Vitoria-Gasteizen 45 urtetik gorako enplegu egonkorra eta kalitatekoa sustatzeko udal laguntza ekonomikoen deialdi publikoa eta hura arautuko duten berariazko oinarriak.

Erabaki horrek administrazio-bidea agortzen du, eta berorren kontra zuzenean aurkez daitezke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, hau argitaratzen den egunaren biharamunetik. Nolanahi ere, alde aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daitezke, Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean, hilabeteko epean, hau argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hura berariaz edo ustez ebatzi arte—. Guztia ere, Administrazio Publikoaren Administrazio-prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8 eta 46.1 artikuluetan xedatutakoaren ildotik, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtso baliatzeko aukera.

Deialdiaren berariazko oinarri arautzaileen publikotasunaren inguruan araudietan xedatutakoa betetze aldera, argitara ematen dira:

#### **1. oinarria. Dirulaguntzen plan estrategikoa eta dirulaguntza ildoak**

Laguntza hauek indarrean dagoen Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (2022-2024) aurreikusten dira, zeina 2022ko urtarrilaren 21ean onetsi baitzuen Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak.

Planak hemen kokatzen ditu laguntza horiek: 27. dirulaguntza-ildoak/Ekintza: Enpleguan egonkortasuna sustatzeko laguntza ekonomikoak.

Aipaturiko ildo horren arabera, laguntzen helburua da kalitatezko enplegua sortzen laguntzea. Era berean, laguntzak izaera orokorrekoak dira, sektore guztiei bideratuak, eraginkortasunean ahalik eta irismen handiena lor dezaten.

Laguntzek bultzatutako sustapen jardueraren bidez lortu nahi diren helburu espezifikoak hauek dira:

- Vitoria-Gasteizko udalerrian kontratazio mugagabea eta enplegu-egonkortasuna sustatzea, lanaldi osoko zein partzialekoan, itzuli beharrik gabeko laguntzen bidez. Laguntza horien helburua da Vitoria-Gasteizko udalerriko lantokietan aldi baterako kontratuak (lanaldi osoko zein gutxienez lanaldiaren ehuneko 50 partzialekoak) kontratu mugagabe bihurtzea.

- Tokiko produkzio sare lehiakor bat bultzatzea, hiriko 45 urtetik gorako pertsonen kolektiboarekin konprometituta egongo dena.

## **2. oinarria. Deialdiaren xedea**

- Vitoria-Gasteizko udalerrian —elkarren arteko lehia baliatuz— lanaldi osoko nahiz partzialerako kontratazio mugagabea eta enplegu-egonkortasuna sustatzera zuzendutako laguntza ekonomikoak emateko baldintzak arautzea dute xede oinarri hauek.

- Vitoria-Gasteizko udalerriko lantegietan 45 urte edo gehiago duten pertsonak zituzten aldi baterako kontratuak lanaldi osoko edo gutxienez ehuneko 50eko lanaldi partzialeko kontratu mugagabe bihurtzera zuzenduta daude laguntzak.

- Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira laguntza ekonomiko horiek.

## **3. oinarria. Enpresa edo pertsona onuradunen betekizunak, eta kontratatzeoak diren pertsonen betekizunak**

- Betekizun hauek betetzen dituzten enpresa edo entitateek jaso ahalko dituzte programa honetako dirulaguntzak, edozein delarik ere beren forma juridikoa:

- Diruz laguntzeko moduko jarduerak garatzea, zuzenean, Vitoria-Gasteizko udalerriko lantoki batean.

- Dirulaguntzen deialdi publikoan parte hartu ahal izateko, pertsona edo entitate eskatzailerak betebeharrak fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak, Foru Aldundiarekikoak eta Vitoria-Gasteizko Udalarekikoak beteta eduki beharko dituzte. Eskabidea aurkezten denean ez ezik, dirulaguntzaren prozesu osoan ere bete beharko da betebeharrak hori —dirulaguntza ematen, obligazioa onartzen nahiz ordaintzen denean—.

- Ezin izango dira administrazio-bidean edo bide penalean zigortuta eta dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukeratik apartatuta egon, ezta horretarako ezgaitzen duen inongo legezko debekuren menpe ere, Emakume eta gizonen arteko benetako berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak edo Gizon eta emakumeen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak —otsailaren 16ko 3/2012 Legeak aldatua— ezarritakoaren arabera sexu-arrazoiengatik diskriminaziotzat jotzen diren egintzen ondorio direnak barne.

- Ondasun-erkidegoen edo elkarte zibilen kasuan, horietan partaidetza duten pertsona fisiko edo juridiko pribatu guztiak joko dira onuraduntzat, eta guztiak bete beharko dituzte oinarri hauetan ezarritako betekizun eta baldintzak. Nolanahi ere, taldea ordezkatzeko duen pertsona bat izendatu beharko da, zeinak taldeari onuradun den aldetik dagozkion betebeharrak betetzeko nahikoa ahalmen izango baitu. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 39. eta 65. artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epea baino lehen desegiten bada elkarteak, emandako dirulaguntza itzuli egin beharko da.

- Baldintza horiek betetzen jarraitzea, ebazpena eman arte.

- Kontratatuko direnek betekizun hauek bete beharko dituzte, indarrean dagoen legediak agintzen dituzten gain:

- 45 urte edo gehiago izatea aldi baterako kontratua mugagabe bihurtzen den egunean.

- Vitoria-Gasteizko udalerrian erroldatuta egotea, gutxienez ere aldi baterako kontratua kontratu mugagabe bihurtu aurreko sei hilabeteetan. Ofizios egiaztatuko da betekizun hori betetzen den.

## **4. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak**

- 45 urte eta gehiago duten pertsonen aldi baterako kontratuak lanaldi osoko edo gutxienez ehuneko 50eko lanaldi partzialeko kontratu mugagabe bihurtzeko laguntzak.

- Laguntzak mugatuta egongo dira: enpresa, autonomo edo irabazi asmorik gabeko izaera pribatuko entitate bakoitzak, ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen baditu, aldi baterako bi kontratu kontratu mugagabe bihurtzeko jaso ahal izango ditu laguntzak.

- 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera mugagabe bihurtutako aldi baterako kontratuengatik jaso ahalko da dirulaguntza, eta gehienez ere, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den arte (2023ko irailaren 1ean).

- Diruz lagun daitezkeen ekintza horien ondorioz sortutako kontratu mugagabea 12 hilabetez mantendu beharko da, deialdi honen 12.8 oinarrian xedatutakoari jarraituz.

##### **5. oinarria. Dirulaguntzaren xede izango ez direnak**

- Eskabidearen zio den kontratua formalizatu aurreko hamabi hilabeteetan enpresa berekin lan-harreman mugagabe bat bukatu duten pertsonen aldi baterako kontratuak kontratu mugagabe bihurtzea. Paragrafo honetan xedatutakoa aplikatuko da, halaber, langileak lehenago lan-harremana izan badu entitate eskatzailearen aurreko enpresekin, hau da, entitate eskatzailea enpresa horren ondorengo bada, Langileen Estatutuaren 44. artikuluan ezarritakoaren arabera (enpresaren titulartasun aldaketaren edo haren forma juridikoaren aldaketaren ondorio bada).

- Enpresaburuen ezkontideen, ondorengoen edo bigarren mailara arteko —hori barne— odol- edo ezkontza-ahaidetasuna duten senideen —edo horien parekoen, izatezko bikoteen kasuan— aldi baterako kontratuak kontratu mugagabe bihurtzea; edo enpresen kontrola duten, zuzendaritza-karguetan diharduten nahiz administrazio-organoetako kide direnenak. Era berean, ez da dirulaguntzarik emango enpresa edo entitateko zuzendaritza-karguetan diharduten edo administrazio-organoetako kide direnen kontratuak mugagabe bihurtzen direlarik.

- Laguntza eskatzen duten sozietateetan partaidetzak dituzten edo kontratazioaren aurreko urtean izan dituzten pertsonen aldi baterako kontratuak kontratu mugagabe bihurtzea.

- Aldi baterako kontratuak aldizkako kontratu finko bihurtzea.

- Aldi baterako kontratua txanda-kontratuaren modalitatea baliatuz bihurtzea.

- Vitoria-Gasteizko Udalak nahiz haren enpresa edo erakunde autonomoek esleitutako kontratuak gauzatzeko aldi baterako kontratuak kontratu mugagabe bihurtzea.

Era berean, ezingo dira laguntza hauetaz baliatu:

- Dirulaguntzen Lege Orokorren 13. artikuluko debeku egoeraren batean dauden enpresa edo entitateak.

- Administrazio publikoak, sozietate publikoak eta haiekin loturarik duten edo haien mendeko diren entitateak.

- Langile autonomo laguntzaileak, gizarteratze-enpresak, ondare-sozietateak eta finantza-entitateak.

- Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginak —urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia— 2.1 artikuluan aipatzen dituen lan-harreman bereziak.

- Deialdi honetan aurreikusten diren enpresentzako laguntzek Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduan ezarritako “minimis” araua bete beharko dute —2013ko abenduaren 24ko Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, L352—, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua “minimis” laguntzei aplikatzeari buruzkoa.

##### **6. oinarria. Baliabide ekonomikoak**

Aurrekontu-zuzkidura, guztira, sei ehun mila eurokoa izango da (600.000,00 euro), Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren 2023ko aurrekontuko 2023: 08 23 2411 4 8967 aurrekontu-aplikazioaren kontura (“Enplegu-egonkortasunerako laguntzak, 2023”).

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 58. artikuluan xedatutakoaren haritik, zuzkidura hori handitzerik izango da Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren erabakia dela medio, baldin eta udal sail horrek enpresei zuzendurik egiten dituen deialdietakoren batean soberako krediturik badago, eta interes publiko, ekonomiko eta sozialeko arrazoiak tarteko.

Edonola ere, zenbateko gehigarria erabiltzeko aski kreditu izan beharko du erabilgarri eta, behar izanez gero, dagokion aurrekontu aldakuntza egin beharko da horretarako, dirulaguntza emateko ebazpenaren aurreko edozein unetan.

#### 7. oinarria. Eskabideak aurkeztea

2023ko ekainaren 1ean jarriko dira indarrean oinarri hauek. Aldez aurretik laburpen-iragarkia Dirulaguntzen Datu-base Nazionalan argitaratuko da.

Deialdia 2023ko ekainaren 1ean indarrean jartzen delarik hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta 2023ko irailaren 1ean bukatuko. Enpresa edo entitate bakoitzeko bi eskabide baino ez dira onartuko.

Enpresa edo pertsona interesdunek eskabidea aurkezteak oinarri hauek onartzen dituztela esan nahiko du.

#### 8. oinarria. Ebazteko epea

Gehienez sei hilabeteko epean ebatziko da prozedura, deialdia indarrean sartzen den egunetik kontatuta. Epe hori berariazko ebazpenik eman gabe igaroz gero, dirulaguntza eskuratzeko eskabidea ezetsizat joko da.

#### 9. oinarria. Balioespen-irizpideak

Irizpide hauen arabera balioetsiko dira aldi baterako kontratuak kontratu mugagabe bihurtzen direlarik dirulaguntza deialdira aurkezten diren eskabideak, puntuaziorik handienetik txikienera arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko:

#### BALIOESPEN-IRIZPIDEAK

KONTRATATUTAKO PERTSONEN EZAUGARRIAK	
55 urteko edo gehiagoko pertsonak (aldi baterako kontratua kontratu mugagabe bihurtzen denean)	50 puntu
Emakumea	30 puntu
Dibertsitate funtzionala duten pertsonak	10 puntu
Lanaldi-mota:	
Osoa	30 puntu
Partziala (% 75ekoa edo hortik gorakoa)	10 puntu
<b>Gehieneko puntuazioa</b>	<b>120 puntu</b>

#### 10. oinarria. Dirulaguntza kalkulatzea

Urteko soldata-kostuen (urteko soldata gordina eta enpresaren kargurako Gizarte Segurantzako kostuak) ehuneko 30eko laguntza aldi baterako kontratua bihurtzeko; lanaldi osorako kontratuak eginez gero, gehienezko muga 8.000,00 euro izango da.

Lanaldi partzialeko kontratuetarako laguntzak proportzionalak izango dira. Dirulaguntza jaso lezakeen gutxieneko lanaldia ehuneko 50ekoa izango da.

Kontratua bihurtzen den egunean 60 urte edo gehiago dituzten pertsonen kontratuek 1.000,00 euro gehiago jasoko dute dirulaguntza gisa.

Urteko soldata-kostutzat zenbatuko dira ordainsari gordinari dagokion gastua (lanaldiaren arabera) eta enpresaren kargurako Gizarte Segurantzari dagozkion kostuak. Enpresak/entitateak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du dirulaguntzaren eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioaren artean, eta gero justifikatu egin beharko du. Baldin eta, gerora, eskabidean adierazitakoa baino zenbateko txikiagoa justifikatzen badu enpresa edo entitateak, eta horrek laguntzaren kalkulua aldatzen duelarik ateratzen den kopurua benetan diruz lagundutakoa baino txikiagoa bada, jasotako dirulaguntzaren dena delako zati proportzionala itzuli beharko du.

Urteko soldata-kostuen kalkulua, deialdi honi dagozkionetarako, dirulaguntzaren xede den kontratua duen langilearen soldata gordina izango da, enpresa edo entitatearen kontura diren gizarte-segurantzako kostuak gehituta —deialdiaren xede den kontratua mugagabe bihurtu ondorengo 12 hilabeteetako—.

#### **11. oinarria. Dirulaguntza ordaintzea**

Ordainketa bakarrean ordainduko dira laguntzak, aurrerakin gisa, diruz lagundutako enpleguei eutsi zaiela egiaztatu ondoren, horiek ematea ekarri duten baldintzak egiaztatzeko ezar litezkeen kontrolak gorabehera. Diruz lagundutako aldia bukatu ondoren, eta hala eskatzen zaiolarik, dirulaguntzaren xedea bete dela justifikatu beharko du enpresa edo entitateak, ematean finkatutako moduan bete ere.

#### **12. oinarria. Pertsona edo enpresa onuradunen betebeharrak**

Dirulaguntzen Lege Orokorraren 14. artikuluan xedatutakoa gorabehera, betebeharrak hauek izango dituzte enpresa edo entitate onuradunek:

1. Laguntza emateko arrazoi izan den jarduera burutzea eta burutu dela egiaztatzea.
2. Dirulaguntzaren xede diren kontratuekin jarduten duten langileei horren berri eman beharko diete.
3. Vitoria-Gasteizko Udalaren egiaztatze-ekintzen eta bertako kontu-hartzaile nagusiaren finantza-kontrolerako ekintzen mende jartzea, baita Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitakoen mende ere.
4. Dirulaguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, Vitoria-Gasteizko Udalari jakinaraztea.
5. Zerga-betebeharrak bete eta Gizarte Segurantzari nahiz Vitoria-Gasteizko Udalari ordaindu beharrekoak ordaindu direla egiaztatzea.
6. Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari beharrezkotzat jotzen duen informazio eta agiri osagarri oro ematea, deialdi honetan jasotzen dituzten dirulaguntzak ulertu eta ebaluatzeko.
7. Udal dirulaguntza honetarako aurkeztutako gastu beretarako bestelako laguntza edo dirulaguntzarik jasoz gero, organo emaileari jakinaraztea.
8. Sortutako kontratu mugagabea gutxienez 12 hilabetez mantentzea, eta aldi horretan zerga-eta lan-betebeharrak betetzea, baita Vitoria-Gasteizko Udalarekikoak ere. Betebeharrak horiek betetzen ez badira, itzuli egin beharko da emandako dirulaguntza, dagozkion interesekin.

Dirulaguntza noren kontratuagatik ematen den, pertsona horrek baja hartzen badu enpresa edo entitatean aldi horretan, betebeharrak berak betetzen dituen ezaugarri bereko beste pertsona batekin ordezkatu beharko da, eta baldintza berberetan edo hobeetan, hilabeteko epean, baja egunetik, eta hala jakinarazi beharko zaio Vitoria-Gasteizko Udalari, gehienez 15 eguneko epean, kontratu berriaren datatik. Ordezkapen bakarra egin ahalko da. Dirulaguntza ematea ebatzi aurretik gertatzen bada baja, aurkeztutako eskabidea bertan behar geratuko da.

Adierazi bezala ordezkatzeko ez bada, itzuli egin beharko da emandako dirulaguntza, dagozkion interesekin.

Kontratuagatik dirulaguntza eman den pertsonaren batek baja hartzen badu enpresa edo entitatean, heriotza, ezintasun iraunkorra, erretiroa, dimisioa edo borondatezko baja nahiz kaleratze zigorra direla kausa, eta dirulaguntza emateko zio izan diren betebeharrak berak betetzen dituen beste pertsona bat kontratatzen ez bada hilabeteko epean, Gizarte Segurantzaren baja ematen zaion egunetik hasi eta dirulaguntza zein kontraturengatik eman zen hura mantendu behar zeneko aldia bukatu arteko tarteari dagozkion dirulaguntza proportzionala itzuli beharko da.

9. Jasotako funts publikoak itzultzea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan adierazten diren kasuetan.

**13. oinarria. Bestelako laguntza eta diru-laguntzekiko bateraezintasuna**

Deialdi honetan aurreikusten diren dirulaguntzak bateraezinak izango dira kontzeptu berarengatik, helburu berarekin eta aldi bererako edozein administraziok edo entitate publiko nahiz pribatuk, dirulaguntzara aurkeztutako kontratuarekin lotuta, ematen dituzten dirulaguntza edo laguntzekin, Gizarte Segurantzak emandako hobariak salbu.

**14. oinarria. Nahitaezko dokumentazioa**

Eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira, nahitaez:

– Eskabidea, lauki guztiak behar bezala beteta, eta zinpeko aitorpena, oinarri hauen I. eranskinean ageri den ereduaren arabera —atal guztiak bete beharko dira, nahitaez—.

– Erakunde eskatzailea egiaztatu eta identifikatzeko agiriak:

1. NAN edo AIZ (autonomoen kasuan), edo enpresaren IFZ.
2. Enpresa eratzeko eskritura, enpresaren estatutuak eta legezko ordezkariaren ahalmenaren egiaztapena. Geroko aldakuntza-eskiriturak, enpresa edo entitatearen ordezkariari edo helbide sozialari eragiten badiete.

3. Legezko ordezkariaren NANaren fotokopia.

4. Ofizioz eskatzeko baimena ukatuz gero, Foru Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta edukitzearen ziurtagiri eguneratuak; Udalari ordaindu beharrekoak ordainduta dauden ofizioz egiaztatuko da.

– Kontratututako pertsona egiaztatzeke agiriak:

1. Laguntza jasoko duen lan-kontratua, bi aldeek sinatuta, Lanbideri kontratazio hori bide telematikoz jakinarazi izanaren egiaztariarekin batera.

2. Laguntzaren objektu den afiliatuaren lan-bizitzaren txostena.

3. Kontratatuaren NANA edo AIZ.

4. Kontratazioaren urteko soldata-kostuaren ziurtagiria, enpresa edo entitateak emana. Urteko soldata-kostuen kalkulua, deialdia honi dagozkionetarako, dirulaguntzaren xede den kontratua duen langilearen soldata gordina izango da, enpresa edo entitatearen kontura diren gizarte-segurantzako kostuak gehituta —kontratua mugagabe bihurtu ondorengo 12 hilabeteetako—.

5. Desgaitasun funtzionalaren aitorpena, kasua bada.

– Aldi baterako kontratua mugagabe bihurtzen denetik 12 hilabetera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1. Afiliatuaren lan-bizitzaren txostena.

2. Aldi baterako kontratua mugagabe bihurtu ondorengo 12 hilabeteetako nominak eta ordainketa-egiaztariak.

Honela justifikatu beharko da nominen ordainketa:

a) Txeke, banku-transferentzia edo ordainketa elektronikoko edozein bitartekoren bidez egin bada, banku-entitateak zigitatutako dokumentua edo banku-ordainagiria baliatuz.

b) Beste bitartekoren bat baliatuz ordaindu bada (bakarrik 1.000,00 eurotik beherako ordainketetarako balio du), langilearen erantzukizunpeko adierazpena dela medio, zeinean hileroko kopuruak jaso dituela adierazi beharko baitu, enpresa edo entitateak zigitatuta eta langileak sinatuta, kobratu izanaren erakusle.

3. Ofizioz eskatzeko baimena ukatuz gero, Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta edukitzearen ziurtagiriak —Udalari ordaindu beharrekoak ordainduta dauden ofizioz egiaztatuko da—.

Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean egongo da eskuragarri ([www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)), baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere, ordutegi ofizialaren barruan.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitakoa aplikagarri izango da.

Bide hauek baliatu ahal izango dira eskabidea eta nahitaezko dokumentazioa aurkezteko:

Dokumentazioa euskarri digitalean aurkeztea: Proiektu teknikoak eta gainerako agiriak euskarri digitalean aurkeztu ahaliko dira, formatu hauetan: USB memoria, CD, DVD edo antzekoak. Artxibo grafiko eta testu-artxiboek pdf formatuan egon beharko dute, eta ez dute karpetarik eduki beharko, baizik eta agiri guztiak maila berean bilduta. Dokumentazioa euskarri digitalean aurkezten delarik, dagokion erantzukizunpeko aitortpena erantsi beharko zaio, udalaren webguneetik deskarga daitekeen inprimakia baliatuz. Eskabideak behar bezala izenpetuta edo ontzat emanda egon beharko du. Euskarri digitala ez zaio itzuliko pertsona edo entitate eskatzaileari.

Dokumentazioa paperean aurkeztea: Paperean aurkezten den dokumentazioak DIN A4 edo DIN A3 tamaina eduki beharko du, eta, herritarrei laguntzeko bulegoko digitalizatzeko errazte aldera, orri solteetan aurkeztu beharko da, grapa, klip edo multzokatzeko beste sistemarik erabili gabe. Eskabideari paperezkoa ez den euskarriaren batean dagoen dokumentazioa erantsi behar bazaio, eta, beraz, digitalizatzerik ez badago, karpeta batean aurkeztu beharko da, edukiaren aurkibidearekin, eta kanpoaldean etiketa jarrita, non zehazten den zein udal zerbitzuri dagokion deialdiko dirulaguntza-ildoak.

Egoitza elektronikoaren bidez: Eskabidea eta gainerako dokumentazioa online erregistratu ahaliko dira, erregistro elektronikoaren bidez. Horretarako identifikazio-txartel digitala erabili beharko da, <https://egoitzaelektronikoa.vitoria-gasteiz.org> helbidean ezarritakoari jarraituz.

### **15. oinarria. Akatsak zuzentzea**

Dirulaguntza-eskabidea ez badago behar bezala formalizatuta edo daturen bat falta badu, edo eskatutako agiriren bat aurkezten ez bada, akatsa konpontzeko eskatuko zaio pertsona edo entitate eskatzaileari, eta hala egin ezean eskabidean atzera egindakotzat joko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

### **16. oinarria. Prozedura**

#### **16.1. Prozedura.**

Oinarri hauetan ezarritako prozedura Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko urriaren 14an onetsitako oinarri orokorrean ezarritakoaren mende dago (2022ko azaroaren 7ko ALHAO, 127. zenbakia), beti ere Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, haren araudian, eta Dirulaguntzei buruzko udal ordenantzan —2005eko ekainaren 17an onetsia, 2006ko urtarrilaren 13ko ALHAO, 5. zenbakia— ezarritakoaren kontrakoa ez bada.

Dirulaguntzak emateko elkarren arteko lehiaren prozedura baliatuko da, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22.1 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.

Dirulaguntzak emateko alderatu egingo dira aurkeztutako eskabideak, 9. oinarrian ezarritako balioespen-irizpideak aintzat harturik lehentasun-hurrenkera ezartze aldera, eta puntuaziorik handienak lortzen dituzten eskabideei esleituko zaizkie dirulaguntzak.

Deialdirako dagoen kreditua oinarrietan finkatutako betebeharrak betetzen dituzten eskabide guztiei erantzuteko nahikoa bada, bazter utziko da horien arteko lehentasun-hurrenkeraren irizpidea, eta guztiak suertatuko dira onuradun.

Oinarrietan eskatutako agiri guztiak eskabideari erantsi zaizkionean ezarriko da lehentasun-hurrenkera.

Berdinketa egokituz gero, eta puntuazio bera duten eskabide guztiei erantzuteko aski aurrekontu-krediturik ez badago, balioesteko atalean guztira lortutako puntuazioa hartuko da aintzat bata edo bestea lehenesteko, hurrenkera honen arabera:

1. 60 urtetik gorako pertsonak.
2. 50 eta 59 urte bitartekoak.
3. Emakume bat kontratatzea.
4. Lanaldi osoko kontratua.
5. Organo eskudunak aitortutako dibertsitate funtzionala.

Berdinketak jarraitzen badu, eskabideak kontratatutako pertsonaren adinaren arabera ordenatuko dira, handienetik txikienera.

Hala ere berdinketak irauten badu, lehenago aurkeztutako eskabideari emango zaio lehentasuna, eskabideak Vitoria-Gasteizko Udaleko sarrera-erregistroan aurkeztu zireneko datak eta orduak kontuan izanik.

#### 16.2. Instrukzioa eta ebazpena.

Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Aztertze-, balioztatze-, hautatze- eta jarraipen-batzorde bat eratuko da horretarako, saileko zuzendariak, Merkataritza Zerbitzuko eta Enpresa Zerbitzuko buruek eta Prestakuntza eta Enplegu Ataleko eta Ekonomia Sozialaren Ataleko buruek osatua. Dirulaguntzak emateko orduan edozein zalantza argitu edo edozein erabaki hartzeko eskumena izango du batzorde horrek.

Eskabideak jaso eta —betebeharrak betetzen diren egiaztatu ondoren— tramitatzea onartzen delarik, balioespen-txosten teknikoak egingo da, eta, hautatze- eta jarraipen-batzordeak proposamena egiten diolarik, Tokiko Gobernu Batzarrak ebatziko ditu eskabideak, horretarako eskumena Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari eskuordetzeko aukera gorabehera.

Deialdi honetako izapideak arintze aldera, laguntzen eskatzaileek helbide elektronikoko operatibo bat eman ahalko dute eskabidean, hartara aurkezten duten dokumentazioan aurkitzen diren akatsak zuzendu ahal izateko, edo eskatzen diren laguntzak arin eta eraginkortasunez, modu legalean, ebatzi ahal izateko beharrezko den beste edozein errekerimendu helarazi ahal izateko, legeak ezartzen duen moduan jakinarazi beharra gorabehera.

Dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpena jakinarazteko komunikabideak ALHAO eta Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa izango dira.

Dirulaguntzak emateko nahiz ezesteko ebazpenak administrazio-bidea agortuko du, eta horren kontra, aukeran, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko da, erabakia hartu duen organoari zuzenduta, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazten denetik.

#### 17. oinarria. Diru-laguntzen berri ematea

Oro har, ematen nahiz ukatzen diren dirulaguntzen zerrenda ALHAOn eta udalaren webgunean argitaratuko da, pertsona edo enpresa eskatzaileak adierazten direlarik, baita emandako dirulaguntzaren zenbatekoa edo ukatzeko arrazoia ere.



Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ematen diren dirulaguntza eta laguntzak Vitoria-Gasteizko Udalaren Gardentasun Atarian argitaratu beharko dira, xehetasun hauekin: zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak; guztia ere, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikuluan xedatutakoa gorabehera.

#### **18. oinarria. Dirulaguntzak aldatzea**

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen dituen funtsezko edozein aldaketak ebazpena aldatzea eragin dezake, betiere hirugarren baten eskubideak kaltetzen ez bada, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak —Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen du— 64. artikuluan xedatutakoaren arabera.

#### **19. oinarria. Kontrolatu, ebaluatu eta ikuskatzea**

Vitoria-Gasteizko Udalak, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren bitartez, emandako laguntzak aurreikusitako xedeetara bideratzen direla bermatzeko beharrezko suertatzen diren kontrol- eta ebaluazio-ekintzak egin ahal izango ditu, eta eskatzen dien informazio osagarri guztia eman beharko diote enpresa onuradunek.

#### **20. oinarria. Laguntzak itzultzea, eta horretarako prozedura**

Kasu hauetan ez da dirulaguntzarik ordainduko: enpresa edo entitate onuradunak udalak emandako dirulaguntzaren bat justifikatu gabe baldin badu, edo entitateak aurreko dirulaguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaiolarik. Ezingo da dirulaguntza ordaindu haririk eta enpresa edo entitate onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, ezta dirua itzultzea bidezkoa dela ebatzi delarik zordun denean ere.

Dirulaguntza eman zuen organoak izango du eskumena hura itzularazteko dosierra abiarazi eta, behar izanez gero, hala galdatzeko erabakia hartzeko.

Ofizioz nahiz organo eskudunak edo interesdunak eskatuta abiarazi ahalko da prozedura.

Horretarako probidentzia ematen delarik, dirua itzularazteko prozedura abiarazi dela jakinaraziko dio udalak dirulaguntzaren onuradun den pertsonari edo enpresari, baita arrazoiak zein izan diren ere, eta entzunaldia eskainiko, egokitzen dituen alegazioak egin eta bidezkotzat jotzen dituen agiri edo justifikazioak aurkez ditzan, 15 eguneko epean.

Alegazioak jasotzen direlarik nahiz halakorik jaso gabe igarotzen delarik epea, ebazpen arrazoitua emango du Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak, eta aurkez daitezkeen errekurtsoen berri adieraziko. Laguntza itzularazteko prozedura ebazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da.

Ebazpenean urraketaren bat izan dela adierazten bada, galdutzat joko da laguntza jasotzeko eskubidea, eta, horrenbestez, oker jasotako dirua Udal Diruzaintzari itzultzeko obligazioa izango da; bi hilabeteko epean egin beharko da hori, jakinarazpena jasotzen denetik.

Borondatezko aldiko epetzat joko da epe hori.

Aurreikusitako epean itzultzen ez bada, premiamendu prozedurari ekingo zaio, aplikagarri diren lege-araudiei jarraiki.

Itzularazteko prozedura administrazio arau-hauste baten ondorioz abiarazia bada, organo eskudunari jakinaraziko zaio, aplikagarri den prozedura zigortzaileari ekin diezaion.

#### **21. oinarria. Indarrean jartzea**

2023ko ekainaren 1ean jarriko dira indarrean laguntza-deialdia eta oinarri hauek.

**22. oinarria. Konfidentzialtasun-klausula**

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betetze aldera, Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak "Sailaren jardueren kudeaketa" izeneko fitxategian sartuko dituela; Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren jarduerak kudeatzea du xede fitxategi horrek. Horien gaineko eskubideez baliatu nahi izanez gero —norberaren datuak eskuratu, zuzendu, baliogabetu edo kontra egin—, Vitoria-Gasteizko Udaleko herritarrei laguntzeko bulegoetako batera jo beharko da.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko martxoaren 31n

*Administrazio Zerbitzuko burua*  
**IGNACIO CEPEDA CRESPO**

**I. eranskina: Eskabide-agiria eta zinpeko aitortpena**

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/18/18/61818.pdf>.